

10. saio irekia. [Luardo aretoa \[2025/11/18\]](#)

1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

Data: Azaroak 18, asteartea.

Saioaren iraupena: 2 ordu.

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Lekua: Luardo Aretoa.

Antolatzaileak: Mutrikuko Udala.

Dinamizazio taldea: Oier Etxebarria Gutierrez (Goienere).

1.2.- Parte-hartzaileak: Mutrikuko bizilagunak norbanako moduan.

Guztira: 9 pertsona, Udaleko teknikaria eta Goienerreko dinamizatzailea barne.

Genero/sexu banaketa:

- Emakumeak: 2
- Gizonak: 7

Adinaren arabera (gutxi gora behera):

- < 19 urte: 0
- 20 – 29 urte: 2
- 30 – 39 urte: 2
- 40 – 49 urte: 3
- 50 – 59 urte: 1
- 60 – 69 urte: 1
- 70 – 79 urte: 0

1.3.- Saioaren helburuak:

1. **Ezagutu:** Partaidetza prozesuko azken saioa dela kontuan hartuta, aurrera begirako beharren inguruan hausnartu.
2. **Aukeratu:** Sortutako pildorak eta azalpen bideoa ikusi eta iritziak jaso.
3. Abenduko bilerak antolatzeko **bilera eguna erabaki**.

2.- Edukiak

2.1.- Goienerreko dinamizatzailerari hainbat galdera egin zaizkio zalantzak argitzeko.

Jarraian zehaztuko diren gaiak jorratu dira eta hausnartu ostean, erabakiak hartu behar direla adostu da.

1. **Bazkideei kobratuko zaien kuota nola definitu erabaki behar da.** Aukera posibleak labur-labur jarraian:
 - a. A aukera: bazkide bakoitzari ezartzen zaion banaketa koefizientearen eta ezarritako energiaren prezioaren arabera kobratu. Berdin dio autokontsumitu ala ez.
 - i. Egonkorragoak eta garbiagoak dira diru sarrera hauek, aurreikusteko eta bazkideei azaltzeko errazagoak. Kuota kalkulatzeko datu bakarra behar da, zenbat energia sortu duen instalazioak eta instalatzaileak pasatutako proiektuan agertzen da aplikazioa jarriko dela erabiltzaileek datuak ikusi ahal izateko.
 - ii. Bazkideen aurrezpena, ordea, ez da hain handia, autokontsumitzen ez bada merkaturatzaileak oso merke konpentsatzen duelako.
 - b. B aukera: bazkide bakoitzari autokontsumitutakoaren erdia itzultzeko eskatzea, Hernaniko ereduak.
 - i. Diru sarrerak aldakorragoak dira eta bazkideen kontsumo ereduak arabera. Kalkuluak egitea zailagoa da eta datu gehiago behar dira. Baliteke merkaturatzailearen arabera autokontsumitutako kopurua fakturretan ez agertzea (Goienerek zehazten du, baina beste merkaturatzaileek jartzen duten ez daki Oierrek) eta horrek arazoak ekartzea gardentasunean, batez ere.
2. **Kontsumitutako kW bakoitzari jarriko zaion prezioa zehaztu behar da komunitatea bideragarria izateko.** Epe luzeko ikuspegia izatea komeni da eta sarrera eta gastuen balantzean oinarritzea. Oierren gomendioa (0,06 – 0,10 € inguruan ibiltzea).
 - a. Neguan garestiagoa da argindarraren prezioa eta orduan Komunitateak jarritakoa merkeagoa izango da. Udan, berriz, asko jaisten da argindarraren prezioa eta, hortaz, baliteke garestiagoa ateratzea komunitatearen prezioa. Beti ere bakoitzaren merkaturatzailearen arabera.
 - b. Bideragarritasun excela nola erabili gogoratzeko online saioa egiteko prest agertu da Oier. Sarrera eta gastuak kalkulatu kontsumitutako energiari prezioa jartzean datzala adierazi du.
 - c. **BEZa kobratu bai ala ez?** Gipuzkoako Ogasuna jada martxan dauden komunitate batzuei BEZa itzultzen ari da, baina beste batzuei, berriz, ez, nahiz eta guztiak entitate juridiko berbera izan. Erabaki behar da BEZa kobratuko den ala ez.
 - i. Bazkide izanez gero, komunitateko parte direnez, BEZa salbuetsi daiteke, baina gero ez da Ogasunetik bueltan jasoko eta diru sarrera

gutxiago izango dira. Bazkideen aurrezpenak handiagoak izango dira.

3. **Zenbatean behin bidaliko zaizkie bazkideei fakturak?** Oierren gomendioa kuotak urtean behin pasatzea da. Orokorrean, ondo ikusi da denbora tarte hori eta, gainera, bankuan egindako ordainketa bakoitza kobratu egingo zaigunez, “giro” kopurua eta, beraz, gastua ere gutxituko litzateke.
4. Banaketa koefizientei dagokionez, udalaren kontratuaren barruan sartzen da lehen koefizienteen banaketa egitea. Hortik aurrera, urtero egitea gomendatzen du Oierrek eta hori ordainpeko post-zerbitzuen barnean sartuko litzateke. **Zein baldintza ezarriko dira lehen banaketa hori egiteko?**
 - a. Banaketari dagokionez, errazago izateko, Oierrek packageak sortzea gomendatu du. Ondoren, kuotak definitzeko ere lagunduko duena. Hau da, 250 kW, 500 kW, 750 kW... edo nahi denaren zifraren arabera multiploak definitu (354,2485 kW ordez, kopuru zehatza definitu) eta algoritmoari gutxienez sortutako energiaren zenbat autokontsumitu nahi den zehaztu. Soberakinak egon daitezke, baina murriztu daitezke eta kalkuluak asko sinplifikatzen dira eta herritarrei azaltzeko ere errazagoa da.
 - b. Koefizienteen banaketa egiteko erabiltzen den logika azaldu da.
5. Goienerren post zerbitzuei dagokienez, ez dago pertsonako 35 €ko kuotarik, beharren arabera sortzen da aurrekontua eta 2.500 – 3.000 € inguruko fakturak izaten dira normalean. Bazkide kopuruaren arabera aldatzen dira, Hernaniko kasuan, adibidez, 200 bat bazkide daude eta hor jada 5.000 €-tara igotzen da. Etorkizunean lanak automatizatu eta zerbitzua merkeagoa izatea espero da. 6 hilabete daude probatzeko udalaren aurrekontuaren barruan eta ondoren erabaki daiteke jarraitu ala ez.
 - a. Som Communitats-eko plataforman alta emateko bi fitxa bete behar dira. Pedrok bete zuen lehenengoa eta bigarrena betetzeko ardura ere hartu du. Bete ostean, Oierri esan eta aktibatu egingo du.
 - b. Bazkidetzak hortik bideratu nahi badira, zuzenean egiten dira. Bestela, eskuz pasatu behar dira. Erabakitzeko geratu da nola egin.**
 - c. **2025eko urte fiskalaren itxiera egiteko ekainaren 30a baino lehen** batzar orokorra egin behar da. 2025. Urtean soilik kapital sozialean egindako ekarpenak agertuko dira balantzean, baina, berdin du, egin behar da.
6. Etorkizuneko proiektuak: Antzomendi poligonoko teilatuaren bideragarritasunaren inguruan hitz egiten hastean, Julenek lan horiek egiteko gaitasuna duela adierazi du. Nafar Koopek ere lan horiek egin ditzake, baina ordaindu egin beharko lirateke eta 400 – 600 € inguruko kostua izango lukete.
 - a. I-DE banatzailean espedientea ireki behar da aurreproiektuaren arabera potentzia jakin bat eskatuz eta, ondoren, posible den ala ez zehazten dute.
 - b. Lehen instalazioa dohainik atera arren, bigarrena egiten bada, ordaindu egin beharko da dirulaguntza jaso ala ez. Pentsatu behar da nola ordaindu behar diren instalazio horiek, guztiek, soilik bazkide berriek, etab.**

- c. Dirulaguntzaren harira, **ordezkaritza izateko ahalik eta lasterren FNMTko ordezkariatza ateratzea komeni da.**

3- Bideoak

Komunikaziorako egindako 3 pildoren eta bideo luzearen emisioa. Bideoak ikusi dira eta 3 pildorak ontzat eman dira. Momentu batean, aman semerik esaten da eta hori agertu ala ez komentatu da, udaleko teknikariak erakundean galdetzeko konpromisoa hartu du. Eragileen pildorari dagokionez, Biarkotik ez egitea proposatu da, bideoaren funtsa ez delako gainerako pildorena bezain interesgarria. Bi aukera daude:

d. Eragileen bideorako gidoia eta mamia prestatu ala ez egin.

- e. Honako egutegia adostu da:
- i. Abenduak 4: 2 ekimenen berri ematen duten kartela bota.
 - ii. Abenduak 5: lehen bideoa, fakturarena.
 - 1. *Hasiera batean lehen bideoa 4an botatzea esan zen, baina kartela joan beharko litzateke lehendabizi.***
 - iii. Abenduak 9: umearen bideoa ikastolan.
 - iv. Abenduak 11: ordezkarien bideoa.
 - v. Abenduak 12: aurkezpenaren gogorapena.
 - vi. Abenduak 15: bideo luzea bota.
 - vii. Abenduak 16: saio informatiboaren gogorapena.

4- Bilera eguna zehaztu.

Horiz adierazitako kontuan saio informatiboa baino lehen ixtea komeni denez, gai horien inguruan hitz egiteko bilera eguna adostu nahi izan da.

Telegrametik bilera eguna adostuko dela esan da.